

PORTUGALETEKO UDALA
EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA
2018-2022

0. AURKIBIDEA

0 AURKIBIDEA	2
1 SARRERA	3
2 EGOERA SOZILINGUISTIKOA PORTUGALETEN	4
3 ESEP 2014-2017ko AMIA	5
4 PLAN ESTRATEGIKOA: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)	7
5 PLAN ESTRATEGIKOAREN ESPARRUAK PORTUGALETEN	8
6 ESPARRUAK	9
• FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	9
• IRAKASKUNTZA	11
• EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	12
• ARLO SOZIOEKONOMIKOA	13
• AISIA-KIROLA	14
• KULTURGINTZA-LIBURUGINTZA	16
• EUSKARAREN KALITATEA	18
• INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK/ PUBLIZITATEA	19
7 ZEHAR-LERROAK	20
• SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA	20
8 EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA	22

1. SARRERA

Portugaleteko Udala 2010etik dabil udalerrian euskararen erabilera bultzatzeko lanean. 2011n onartu zuen lehen plan estrategikoa, eta bigarrenak 2014tik 2017ra bitarteko indarraldia izan du.


Euskara Zerbitzuak 2017ko urrian Open Topaketa antolatu zuen; jardunaldi hartan, udalerriko hainbat herritarrek parte hartu zuten eta haien iritziekin eta ekarpenekin iraungitako plangintzaldiaren ebaluazioa osatu zuen. Era berean, plan estrategiko berrirako ekarpenak ere jaso ziren.

2018-2022 plan estrategikoaren zirriborroa da esku artean duzuna. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak proposatzen duen ESEP marko orokorra egokitu da Portugaleteko ezaugarrietara. Bestetik, Open Topaketako eta batzordeetako ekarpenak jaso dira.


Portugaleteko euskararen plan estrategikoa 2018-2022 proposamena Euskararen Aholku Batzordeak ontzat emanda, Udalbatzak onartu beharko du 2018ko martxoko Udalbatzan.

2. EGOERA SOZILINGUISTIKOA PORTUGALETEN

**Hizkuntza-gaitasuna Portugaleten
Bilakaera 2001-2006-2011 (biztanleak)**



Hizkuntza-gaitasuna Portugaleten 2011 (%)



EUSTATen azken datuen azterketak hurrengo informazio aipagarria eskaintzen du:

Portugaleten, ia-euskaldunen kopurua, gutxi bada ere, igo egin da 2001etik 2011ra.

Euskaldun kopuruak 2001etik 2006ra igoera handia izan zuen, baina hurrengo urteetan mantendu egin da.

Adin tarteari dagokionez, ume eta gazteen artean dago euskaldun ehuneko handiena.

Egun (2011), Portugaleten, biztanleen %47k ulertzen du euskara, biztanleen ia erdiak.

*2016ko datu soziolinguistikoak 2018ko apirilean argitaratuko dira. Horren berri portugalete.eus webgunean.

3. ESEP 2014-2017ko AMIA

Portugaleteko Udalak 2017ko urriaren 21ean OPEN TOPAKETA antolatu zuen; AMIA hau topaketa parte-hartzaile horren emaitza da. Helburua zen, Portugaleteko ESEP 2014-2017 plan estrategikoa baloratzea eta ebaluatzea eta plangintzaldi berrirako proposamenak jasotzea, eragile eta herritarren laguntzaz.

<http://www.portugalete.eus/open-topaketa-emaitzak-argazkiak-eta-bideoa>

<p>I N D A R G U N E A K</p>	<p>Irakaskuntza: Ikastetxe gehienek hizkuntza plana dute; gazteen ezagutza hobetzeko, ikastetxearen esparru guztietan (gelan, jolas-orduan, jantokian...) erabilera handitzeko, ikasle etorri berrientzako murgiltze programak...</p> <p>Euskalduntzea: Herritarrek euskara ikasteko eta hobetzeko egiten duten ahalegina, euskaltegien dauden ikasleak. Euskaltegien lana oro har, Berbalagun eta Gurasolagun bezalako programak.</p> <p>Aisialdia-kirola-kultura: Elkarteen argitalpenak ele bitan izateko ahalegina. Euskarazko ekintzen antolaketa, Euskararen agenda. Euskarazko kultur kontsumoa bultzatzeko eskaintza zabaldu dute elkarkeek. Eskolaz kanpoko ekintzetan (kirolean) gero eta eskaintza zabalagoa euskaraz. Kirol talde batzuek, jardueretan euskarazko eskaintza handitu dute (arraun taldea). (H)aritutuz elkarteak sortu da,</p> <p>Udala: Euskara plana diseinatu eta ezarrita dauka. Langileak euskalduntzeko eta trebatzeko ikastaroak eskaintzen ditu eta parte hartzeko erraztasunak ematen dizkiete. Euskara zerbitzua sendotu da. Euskarazko kultura eskaintza handitu da azken 4 urteetan. Haur, gazte eta helduentzako ekitaldiak antolatzen ditu Bereziki, gazteentzako eskaintza indartu du. Euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak antolatzen/laguntzen ditu (Berbalagun, Merkataritzarako eta ostalaritzarako euskarriak, eusLiderrak...) Diru-laguntzak: euskara ikasteagatik, kanpo errotulazioa euskaratzeagatik...</p>	<p>A H U L E Z I A K</p>	<p>Transmisioa: Familia transmisioan etena dago, guraso elebakarrak</p> <p>Irakaskuntza : Ikastetxe batzuetan etorkin kopuru handia Motibazioerako tresna falta Gazteen erabileran eragiteko zailtasunak: erraztasuna falta, ohitura falta, prestigiorik ez, jarrera negatiboa...</p> <p>Aisia-kirola-kultura : Begirale batzuek ezagutza falta; hiztegi teknikoarekin zailtasunak Udala eta elkarten arteko elkarlana: komunikazioa, euskarazko eskaintza... Hitzarmenen jarraipena ez dago osatuta. Eragile euskaldunak ez daude identifikatuta</p> <p>Arlo sozioekonomikoa : Merkataritzan, zerbitzuetan, Osakidetzan...gaztelania erreferentzia nagusia (paisaia, ahozko eta idatzizko komunikazioan...)</p> <p>Udala: Udalaren aurrekontua ez da nahikoa . Diru-laguntza eskasak . Euskara ez da erronka, lehenetasuna Udalarentzat. Ordezkeri politikoen ezagutza falta, ez dira eredu egokiak. Udal langileen aldetik, euskarazko arreta/harremana ez dago bermatuta: ezagutza falta, jarrera ezkorra... Udal zerbitzu asko ez dira euskaraz eskaintzen. Euskarazko kultura eskaintza, ez da nahikoa. Elkarkeekin harreman nahikorik ez: elkarlanerako zailtasunak . Udaleko irudian, oraindik, gaztelaniaren presentzia nagusi da.</p>
---	---	---	---

A U K E R A K	<p>Elkarte eta herritarrak, oro har:</p> <p>Gune euskaldunak identifikatu herrian (gida bat sortu/arnasguneak sortu) Euskaldun sarea osatu</p> <p>Jarreretan, motibazioan eta erabileran eragiteko ekintzak bultzatu</p> <p>Haur eta gazteentzako aisia, kirola eta kultura eskaintza euskaraz izan. Aisialdian, kirolean...erabilera bultzatu (erabiltzaileak, begiraleak...)</p> <p>Kirolerako irizpide eta jarraibideak diseinatu eta proposatu Udala eta elkarteen arteko elkarlana/koordinazioa landu</p> <p>Euskalduntzen jarraitu; euskaltegiak lagundu, gurasoak euskaldundu...</p> <p>Arlo sozioekonomikoa euskarara hurbildu (laguntzak, erraztasunak eskaini...)</p>
--	---

4. PLAN ESTRATEGIKOA: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)

Portugaleten euskara sustatzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentua da Euskararen Plan Estrategikoa; hurrengo urteetan Portugaleten euskara indartzeko herritarrek eta Udalak izango duten lanerako tresna.

PORTUGALETEKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUA 2018-2022			
Portugaleteko udalerrian euskararen ezagutza eta erabilera handitzea, batez ere haur eta gazteen eremuan. Era berean, eragileekin elkarlana lantzea eta sinergiak batzea.			
HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESPARRUAK (ESEP)	ESPARRUAK (PORTUGALETE)	ZEHARLERROAK
EUSKARAREN JABEKUNTZA	1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	1. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA	SENTSIBILIZAZIO ETA MOTIBAZIOA
	2. IRAKASKUNTZA	2. IRAKASKUNTZA	
	3. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	3. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	
EUSKARAREN ERABILERA	4. ADMINISTRAZIOA	4. ARLO SOZIOEKONOMIKOA	
	5. GUNE EUSKALDUNAK	5. AISIA/KIROLA	
	6. ARLO SOZIOEKONOMIKOA	6. KULTURGINTZA/ LIBURUGINTZA	
	7. AISIA/KIROLA	7. EUSKARAREN KALITATEA	
EUSKARAREN ELIKADURA	8. LIBURUGINTZA	8. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK/ PUBLIZITATEA	
	9. KULTURGINTZA		
	10. PUBLIZITATEA		
	11. CORPUS-PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA		
	12. HEDABIDEAK		
	13. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK		

5. PLAN ESTRATEGIKOAREN ESPARRUAK PORTUGALETEN

Hauek dira lehenetsitako esparruak, euskararen ezagutzaren eta erabileraren aldeko aurrerapausoak emateko:

1. Familia bidezko transmisioa

2. Irakaskuntza

3. Euskalduntze-alfabetatzea

4. Arlo sozioekonomikoa

5. Aisia-kirola

6. Kulturgintza-liburugintza

7. Euskararen kalitatea

8. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak/Publizitatea

6. ESPARRUAK

1. Familia bidezko transmisioa

Familia da hurrek euskara ikasteko duten lehen gunea; esparru honetan Portugaleteko Udalak aparteko lana egin nahi du, guraso, ikastetxe eta euskaltegiekin elkarlanean. Egun, Portugaleteko 20 urtetik beherako haur eta gazteek euskara ezagutzen dute; euskarari espazioak eskaintzea gakoa da, erabilera handitu nahi bada.

Helburu zehatzak		2018	2019	2020	2021	2022
1.1	Herritarren artean euskararen aldeko jarrera eta eleaniztasunaren onurak lantzea (111/112)					
1.2	Euskararen arnasmuneak baliatzea eta berriak sortzea; batez ere, eskolatik kanpo eta eskolan bertan guraso eta umeentzako arnasmuneak sortzea eta elikatzea (113/131/133)					
1.3	Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea (114)					
1.4	Guraso, gurasogai eta aitona-amonengan eragitea hizkuntza ohiturak umeengan duten garrantziaz jabe daitezen (115/116)					
1.5	Bikote euskaldun zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza-jokabideak lantzea (117)					

Ekintzak	
<ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazio kanpainak zabaldu guraso, gurasogai eta familientzat oro har. Arreta berezia jarri DBH eta Batxilergoko ikasleen gurasoengan. • Umeak eta familiak biltzen diren inguruetan, euskarazko giroa sustatu (parkeetan, ikastetxeetako patioetan, ludotekan...) • Euskarazko produktuen inguruko informazioa zabaldu euskarri desberdinak erabilita • Gurasoen hizkuntza-jokabideak lantzeko, hizkuntza-tresnak ezagutzeko... lantegiak eskaini • Gurasolaguneko ekintzak indartu • Familia osoarentzat ekintzak antolatu: txangoak, eskulan tailerrak... 	Eragiteko sektoreak
	Gurasoak, gurasogaiak, aitona-amonak,
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, guraso elkarteak

2. Irakaskuntza

Portugaleteko Udalak, ikastetxeekin batera, euskara esparru formaletik kanpo ere erabiltzeko lana egin nahi du. Bigarren Hezkuntzan eta eskolaz kanpoko jardueretan eragin nahi du batez ere.

Helburu zehatzak	2018	2019	2020	2021	2022
2.1 Eskolako ekintza guztietarako euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzea (244)					
2.2 Eskola eta udalerriko elkarteekiko edo taldeekiko loturak sendotzea (251)					
2.3 Kanpotik etorritako familiei arreta jarri eta sentsibilizazioa lantzea (261/262)					

Ekintzak	
<ul style="list-style-type: none"> Haur eta gazteekin lan egiten duten elkarteekin harremanak lotu (guraso elkarte, aisialdi sarea...). Eskolaz kanpoko eskaintza aztertu eta euskararen presentzia bermatzeko ekintzak proposatu. Kanpotik etorritako familiei zuzendutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak bideratu, beste Udal zerbitzuekin elkarlanean. Hizkuntza lidergoa eta erabilera handitzeko ekimenak sustatu, gazteen artean hizkuntza-ohitura berriak sortzeko eta euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzeko Koordinazio-gune bat antolatu ikastetxeetako hizkuntza-normalizazio arduradunak eta Udaleko Euskara Zerbitzuaren artean Ikastetxeetako guraso-bileretan Euskara Zerbitzuak parte hartu. Lehentasuna eman DBHko ikasleen gurasoei. 	<p>Eragiteko sektoreak</p> <p>Guraso elkarteak, ikastetxeak, etorri berrien elkarteak, aisialdi sarea</p> <p>Arduradunak</p> <p>Euskara Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuak, ikastetxeak, guraso elkarteak, Gazteria Saila</p>

3. Euskalduntze-alfabetzea

Portugaleteko helduen euskalduntzea erronka handia da, eta horregatik euskaltegiek neurri eta maila desberdinetako euskara ikastaroak eskaintzen dituzte. Euskalduntzen ari diren lagunentzat garrantzitsua da erabilera eta horretarako, Portugaleteko Udalak aspaldi martxan jarri zuen Berbalagun egitasmoa, euskara praktikatzeko guneak eskainiz.

Era berean, aktibazioaren inguruan sortzen ari den mugimenduan Portugaleteko Udalak eragile zuzena izan nahi du.

Helburu zehatzak	2018	2019	2020	2021	2022
3.1 Euskalduntze prozesuan diru-laguntza sistema bat eratzea (beka sistema) (331/332)					
3.2 Euskarazko harreman-sareak trinkotzeko eta talde dinamikak sortzeko aukerak ematea (381)					
3.3 Berbalagun eta Gurasolagun zabaltzea (382)					

Ekintzak	
<ul style="list-style-type: none"> Euskara ikasleentzako beka-sistema egokitu eta eguneratu urtez urteko beharrak kontuan hartuta. Eragileen arteko harremanak sendotu ekintzak bateratu eta talde dinamikak sortzeko (Elkargunea eratu: Udala, euskaltegiak, (H)arrituz...) Euskaraldia eta aktibazioarekin lotutako ekimenak sustatu. Berbalagun egitasmoa indartu eta zabaltzea. Ekintza erakargarriak diseinatu eta sustatu. Gaztelagun egitasmoa abiatu, DBH eta Batxilergoko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko. 	Eragiteko sektoreak
	Euskaltegiak, euskalgintza
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, Hezkuntza Saila

4. Arlo sozioekonomikoa

Portugaleteko arlo sozioekonomikoan -denda, taberna eta zerbitzu enpresetan- euskararen presentzia eta erabilera handitzeko ekimenak eta baliabideak eskainiko ditu Udalak. Erabiltzaile eta kontsumitzaileei hizkuntza aukera errazteko tresnak eskainiko dizkie establezimenduei.

Helburu zehatzak	2018	2019	2020	2021	2022
4.1					
4.2					
4.3					
4.4					

Ekintzak	
<ul style="list-style-type: none"> Merkataritza elkarteekin lankidetzak eta aholkularitza bideratzeko hitzarmena landu Sektoreetarako merkataritza mikroplanak diseinatu eta garatu (ostalaritza, okindegiak, arrandegiak...) Hizkuntza paisaian eragiteko euskarriak eta baliabideak eskaini Kanpo irudia euskaraz ere jartzeko sentsibilizazio lana egin eta pizgarriak eskaini (diru-laguntza...) Merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko komunikazio kanpainak egin 	Eragiteko sektoreak
	Merkataritza elkarteak, merkatariak, ostalariak,
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, Merkataritzaren Dinamizaziorako Bulegoa

5. Aisia/kirola

Esparru hauetan euskaraz aritzea oso garrantzitsua da, bereziki haur eta gazteen artean. Hori dela eta, haur eta gazteen aisialdirako, euskarazko espazioak erraztea helburu du Udalak.

Kirol jardueretan euskararen presentzia sendotzeko, Portugaleteko Udalak kirol elkarteekin hitzarmenak berrituko ditu, haiekin elkarlanean aritzeko asmoz.

Bi esparru hauetan hezitzaileen hizkuntza-trebakuntza, eredugarritasuna eta hizkuntza-lidergoia lantzea ezinbestekoa da, haur eta gazteen ispilu baitira.

Helburu zehatzak		2018	2019	2020	2021	2022
A	AISIA					
5.1	Euskarazko jarduerak bultzatzea haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan (711)					
5.2	Gazteen artean euskararen irudia zehaztu, hobetu eta indartzea (712)					
5.3	Aisialdiko eskaintzan euskarazko ekimenak lehenestea (713)					
5.4	Begiraleen kontratazioan eta aisialdiko ekimenera bideratzen diren diru-laguntzetan hizkuntza-irizpideak txertatzea (723)					
5.5	Ekitaldietan euskara kalitatezkoa dela bermatzea (731)					
B	KIROLA					
5.1	Herriko kirol taldeekin lankidetzak antolatzea, hezitzaileen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko (782)					
5.2	Kirol elkarteentzat euskararen erabilerari lotutako sariak antolatzea (785)					
5.3	Kirol taldeekin hitzarmengintza lantzea (786)					
5.4	Kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskararen presentzia bermatzea ahoz zein idatziz (7104)					

Ekintzak (A)	
<ul style="list-style-type: none"> Haurrei zuzendutako euskarazko aisialdi eskaintza erakargarria Gazteei zuzendutako euskarazko aisialdi eskaintza erakargarria Nerabeen aisialdi eskaintza aztertu eta hobetzeko gazte-lantaldea eratu, gazteak eurak erdigunean jarrita. Aisialdi sarearekin elkarlanean, begiraleen hizkuntza-gaitasuna eta trebakuntza aztertu eta baliabideak eskaini, zerbitzua euskaraz eskain dezaten 	Eragiteko sektoreak
	Aisialdi Sareko eragileak, begiraleak
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, Gazteria Saila

Ekintzak (B)	
<ul style="list-style-type: none"> Kirol hitzarmengintza egitasmoari jarraipena eman eta elkarte gehiagora zabaldu. Kirol elkarteetako hezitzaileen hizkuntza-trebakuntza bideratu. 	Eragiteko sektoreak
	Kirol elkarteak, kirol zerbitzuak
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, Kirol Saila, Demuporsa,

6. Kulturgintza- liburugintza

Portugaleteko Udalak euskarazko kulturaren zabalkundea egiten du haur, gazte eta helduentzat eskaintza zabala aurkeztuz. Euskara Zerbitzuak beste udal sail batzuekin batera euskarazko kultura kontsumitzeko eta sorkuntza lantzeko ekintzak antolatzen ditu.

Helburu zehatzak		2018	2019	2020	2021	2022
A	LIBURUGINTZA					
6.1	Liburutegian euskarazko liburuen presentzia bermatzea eta sustapena egitea (814/816)					
6.2	Irakurleen klubak sustatzea (815)					
6.3	Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko liburu-denden parte-hartzea sendotzea (818)					
6.4	Euskal testuen irakurketa publikoak bultzatzea (8110)					
B	KULTURGINTZA					
6.1	Euskarazko kultura ekoizpenak kontsumitzeko pizgarrien sistema bat eratzea (911)					
6.2	Kultura ekoizpenak sustatzea herritarrentzat oro har; era berean, haurrei eta gazteei zuzendutako eskaintza lehenestea (913)					
6.3	Elebidun pasiboak erakartzeko kultura ekintzak antolatzea (914)					
6.4	Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak abian jartzea edo indartzea (923)					
6.5	Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea (941)					

Ekintzak (A)	
<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegiak urtero euskarazko liburu berriak (kopuruen zehaztapenak kudeaketa planetan jaso) erosi eta toki ikusgarrian ipini horiek zabaltzeko. • Literatur ekitaldiak antolatu. • Euskaraz irakurtzearen aldeko kanpainak sustatu liburu-dendekin elkarlanean. • Irakurraldi etengabea antolatu eta parte hartzea sustatu ikasle-gazte, euskara-ikasle... 	Eragiteko sektoreak
	Haur eta gazteak, herritarrak oro har, liburu-dendak
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, Kultura Saila, liburutegia
Ekintzak (B)	
<ul style="list-style-type: none"> • Modako kultur ekitaldiak antolatu herrian, batez ere kontuan izan gazteen gustuak hauek hautatzean. • Euskarazko sorkuntza bultzatzeko lehiaketak (maitasun mezuak, ipuin-lehiaketa, bideo lehiaketa...) • Kultura agenda osatu eta zabaldu hilero, euskarazko eskaintza nabarmenduta 	Eragiteko sektoreak
	Haur eta gazteak, herritarrak oro har
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, Kultura Saila,

7. Euskararen kalitatea

Euskara Zerbitzuak, esparru honetan, bi ekintza nagusi aurreikusi ditu; batetik, zerbitzu horren berezko lana den kartel eta errotulazioaren zuzentasunaren kontrola egitea eta horretarako protokolo bat zehaztea, eta bestetik, Udaleko beste sailekin protokolo hori adostea eta bideratzea.

Helburu zehatzak		2018	2019	2020	2021	2022
7.1	Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza-bideak jarriz (1134)					
7.2	Toponimia ofizial eta zuzenaren jarraipena egitea (1135)					
7.3	Euskararen erabilera publikoaren kalitatea bermatzea (1161)					
7.4	Euskarazko kartel eta errotuluetan erabiltzen den euskararen zuzentasuna bermatzeko bideak jartzea (1163)					

Ekintzak	
<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza paisaian egin beharreko zuzenketak egiteko prozedura zehaztu eta adostu dagokien udal sail guztiekin batera Udalaren eskumeneko kartel eta errotuluetan euskararen zuzentasuna bermatu, horretarako protokolo bat zehaztu arloetako arduradunekin 	Eragiteko sektoreak
	Hirigintza Saila, Lan eta Mantenu Saila,
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua

8. Informazioaren eta komunikazioaren Teknologiak/ Publizitatea

Helburu orokorra da hedabideak baliatzea euskararen aldeko mezuak zabaltzeko.

Helburu zehatzak	2018	2019	2020	2021	2022
8.1 Publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, hedabide guztietan (1021)					
8.2 Sarean informazio-gune iraunkorra eguneratuta mantentzea (1312)					
8.3 Administrazio publikoetan informatikako tresnak euskaraz konfiguratzeko (1314)					

Ekintzak	
<ul style="list-style-type: none"> Udalaren publizitatea edo iragarkiak euskaraz ere hedatzeko prozedura adostu komunikazio arduradunekin. Portugalete.eus webgunea elikatu, hobetu eta zabaldu. Udalaren sare sozialetako mezuak euskaraz ere izan daitezzen jarraipena egin. Herritarrek erabiltzen dituzten informatikako tresnak euskaraz konfiguratzeko plana diseinatu eta adostu. 	Eragiteko sektoreak
	Udal sailak oro har
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua, Teknologia berriak eta herritarren arteko komunikazio saila

7. Zehar-lerroak

9. Sentsibilizazioa eta motibazioa

Herritarrak oro har
9.1 Erakundeen hizkuntza erabilera eredugarri bat bultzatzea, elebitasunaren ikuspegitik eta euskararen aldeko jarreraren aldetik.
9.2 Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea, etorri berrientzako harrera programekin uztartuz.
9.3 Gazteengan eragitea erreferente diren pertsonak erabiliz.
9.4 Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak eta Euskaraldiaren ingurukoak elkarlanean antolatzea.
Familia transmisioa
9.5 Gurasoengan, gurasogaiengan eta aiton-amonengan eragitea, transmisioa ziurtatzeko
Irakaskuntza
9.6 DBHn, Batxilergoan edo Lanbide Heziketan sartzear dauden gazteengan eragitea, euskarazko ereduak hauta ditzaten
9.7 Herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez informazioa ematea
Euskalduntze-alfabetatzea
9.8 Euskara ikasten dabilenentzako aitorpen sistema bat eratzea
9.9 Herritarrentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragitea (autoeskolak, jubilatuek, akademiak...), ikastaroak euskaraz ere antolatzeko
Arlo sozioekonomikoa
9.10 Herritarrengan eta merkatari eta ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko
9.11 Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarten bitartez

Aisia eta kirola

9.12 Aisialdi taldeekiko lankidetza bultzatzea, euskararen erabileran ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko

9.13 Aisialdirako zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituzten eragileei zuzendutako sentiberatze eta informazio kanpainak diseinatzea

9.14 Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetza bultzatzea, euskararen erabileran ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko

Kulturgintza-liburugintza

9.15 Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea

9.16 Euskaraz argitaratutako liburuak eskola barruan eta eskolatik kanpo ezagutarazteko komunikazio-estrategiak diseinatu eta abiaraztea

9.17 Kultura elkarteekiko elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko

9.18 Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatzea

9.19 Herritarren artean euskarazko kultur produktuen sorkuntza eta kontsumoa bultzatzeko komunikazio-ekintzak bultzatzea

8. Euskararen Aholku Batzordea

Euskararen Aholku Batzordea eratzeko proposamena 2018-2022 epealdirako.

<http://www.portugalete.eus/sites/default/files/EABren%20Araudia.pdf>

Familia transmisioa	Normalkuntza aditua
..... guraso elkarteak	Aitor Etxebarria
Gurasolagun	
Irakaskuntza	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak/ publizitatea
Santa María ikastetxea edo Asti Leku Ikastola	Marruka. Portugaleteko proiektu komunikatiboa
Ballonti BHI	
Euskalduntze-alfabetatzea	Udala
Portugaleteko Udal Euskaltegia	Udal langileen ordezkariak (2)
Xaribari AEK euskaltegia	
Arlo sozioekonomikoa	Alderdi politikoak
Udalaren Merkataritza Saileko ordezkaria (Oihana Rodríguez)	PSE
Merkataritza eta ostalaritza elkarteak	EAJ-PNV
Aisia eta kirola	PORTUGALUJ@ DESPIERTA
Portugaleteko Aisialdi Sarea	EH BILDU
... kirol klub/taldea	PP
Kulturgintza-liburugintza	
(H)aritz kultur elkarteak	
Itsas kresala (emakumeen elkarteak)	

